


34. Euskal  
Herriko  
Eskulangintza  
Azoka



Dossier  
de Prensa

28,29,30 de abril  
1 de mayo de 2012


Prentsa  
Txostena

2012, apirilak 28,29,30,  
Maiatzak 1an

34.

EUSKAL HERRIKO ESKULANGINTZA AZOKA  
FERIA DE ARTESANÍA DEL PAÍS VASCO  
Errenteria

## 34. Euskal Herriko Eskulangintza Azoka



## INTRODUCCIÓN

### XXXIV EDICIÓN

La XXXIV Edición de la Feria de Artesanía del País Vasco de Errenteria se celebrará del sábado día 28 de abril al martes, 1 de mayo. El lugar de celebración será la sala polivalente "Jose Luis Caso Aretoa" situado en el Centro Cultural Merkatuzar.

El horario para visitar la Feria será de 11:00 h. a 14:00 h. de la mañana y de 16:30 a 20:30 horas de la tarde. **La apertura de la Feria será el SÁBADO 28 a las 16,30 con lo que este primer día el horario será sólo en sesión de tarde.**

Organizado por Ereintza Elkartea, con la colaboración de las asociaciones artesanales Gabiltza y Lur Kolektiboa, y el patrocinio de la Diputación Foral de Gipuzkoa, el Ayuntamiento de Errenteria y Kutxa. La Feria de Artesanía contará en esta nueva edición con una variada y amplia participación de talleres artesanales procedentes de todo Euskal Herria. También, dentro del tema especial dedicado a Alfarería y Cerámica nos visitarán talleres de Aragón, Castilla León, Castilla La Mancha y La Rioja

Serán en total 50 los talleres que expondrán sus productos, mayoritariamente acudirán de Gipuzkoa, siendo el resto de Bizkaia, Araba, Navarra, Iparralde y los ya mencionados del resto del Estado.

La Feria de Errenteria, tanto por su antigüedad como por su organización, se sitúa por derecho propio dentro del circuito de las ferias de artesanía más importantes del País. Es por tanto un

## SARRERA

### XXXIV. AZOKA

*Errenteriako Euskal Herriko XXXIV. Artisautza Azoka apirilaren 28etik maiatzaren 1era egongo da ikusgai, larunbatetik asteartera. "Jose Luis Caso Aretoa" izeneko erabilera anitzeko gelan antolatuko da, Merkatuzar Kultur Gunean.*


*Azokaren ordutegia hauxe izango da: 11:00etatik 14:00etara, goizez, eta 16:30etik 20:30era, arratsaldean. Hilaren 28an irekiko da Azoka, larunbaterekin, 16:30etik aurrera; lehen egun horretan, beraz, arratsaldeko ordutegia soilik izango du.*

*Azoka Ereintza Elkartek antolatu du, Gabiltza eta Lur Kolektiboa artisau-elkartek lagunduta eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, Errenteriako Udalak eta Kutxak babestuta. AAurtengo ekitaldian ere parte-hartzaile asko eta askotarikoak bilduko ditu Eskulangintza Azokak, Euskal Herriko txoko guztietatik etorriak. Horretaz gain, Buztingintzari eta Zeramikari egingo diegun tarte berezian, beste hainbat herrialdetako eskulangileak ere izango dira gurean: Aragoikoak, Gaztela eta Leongoak, Gaztela Mantxakoak eta Errioxakoak, hain zuzen.*

*Guztira 50 artisauk erakutsiko dituzte beren produktuak. Gehienak gipuzkoarrak izango dira; gainerakoak, Bizkaikoak, Arabakoak, Nafarroakoak, Iparraldekoak eta Estatuko beste toki bazuak.*

*Errenteriako azokak garrantzi handia du Euskal Herriko artisautza-azoken artean, bai bere antzinatean, bai bere antolamenduagatik.*

## 34. Euskal Herriko Eskulangintza Azoka



buen escaparate para que los talleres participantes realicen ventas directas con el público asistente, además de los contactos que se puedan realizar para futuras ventas o relaciones comerciales.

En este sentido, no hay que olvidar que la artesanía es también una forma de vida, y que el colectivo artesano apuesta por un modelo basado en la creatividad, mediante la intervención manual y el conocimiento técnico en la fabricación de sus múltiples y variados productos.

Por tanto, en la feria se podrán ver y adquirir productos exclusivos realizados de modo artesanal. Productos que sin intermediarios, van directamente de las manos del productor al comprador y que mediante su relación directa, pueden ser personalizados al gusto del cliente. Un producto autóctono y de calidad con el que el comprador está, además, apoyando un sector profesional vasco, que apuesta por el mantenimiento de una actividad identificada con los valores del País.

## EL PROCESO DE SELECCIÓN DE ARTESANOS PARA LA FERIA

### EL PROCESO DE SELECCIÓN

El proceso de selección de los talleres artesanos que exponen en la Feria es uno de los puntos más complicados que año tras año afrontan los organizadores. Hay que tener en cuenta que hay una limitación de espacio en el recinto fe-

*Hori dela eta, erakusleihu aparta da artisauen-tzat, produktuak zuzenean saltzeko aukera eskaintzen baitie, baita jendea ezagutzekoa ere, etorkizuneko salmentei edo merkataritza-harremanei begira.*

*Ildo horretatik, ez dugu ahaztu behar artisautza bizimodu bat ere badela. Artisauak sormenean oinarritutako bizimodua daramate; euren eskuak eta ezagutza teknikoak erabiltzen dituzte hainbat eta hainbat produktu egiteko.*


*Beraz, azokan, eskuz egindako produktu esklusiboak ikusi eta erosteko aukera izango dute bisitariak. Artisauak zuzenean salduko dizkiete produktu horiek erosleei, eskutik eskura eta bi-tartekorik gabe. Zuzeneko harremanari esker, pertsonalatu egin ahal izango dituzte lanak, bezeroen nahiak asetzeko. Kalitate handiko bertako produktu horiek eskuratuz, erosleek euskal sektore profesional bat sustatuko dute, Euskal Herriko balioekin loturiko jarduera bati eutsi nahi dion sektore bat, alegia.*

## AZOKARAKO ARTISAUEN HAUTAKETA-PROZESUA

### HAUTAKETA-PROZESUA

*Azokan parte hartuko duten artisauak aukeratzea zeregin zailenetako bat izaten da antolatzaileentzat. Izan ere, azoka-barrutiak eduki-era jakin bat du, eta, beraz, erakusketarien eta standen kopurua mugatu egin behar izaten*

## 34. Euskal Herriko Eskulangintza Azoka



rial que obliga por consiguiente a una limitación de expositores y de stand. Por otra parte la organización estima que un número exagerado de participantes puede dispersar la atención del público sobre los productos, y en consecuencias perjudicar las ventas.

Para esta edición, como ya se ha señalado serán 50 los talleres artesanales que nos visitarán, siendo un total de 19 los que vienen por primera vez a la Feria de Artesanía de Errenteria lo que supone un 36% del total de participantes y a su vez una importante rotación de artesanos y oficios.


Para el proceso de selección se siguen unos criterios que comienzan por elegir de entre toda la variedad de materias, a los talleres que presentan una mayor gama de productos, trabajos, experiencia, etc. intentando dar cabida a todos aquellos que, objetivamente, puedan despertar mayor interés en el público visitante. Asimismo se hace un considerable esfuerzo por traer talleres y oficios nuevos. También tienen prioridad especial los de Gipuzkoa que este año suponen un 46% de los mismos. No obstante se pretende mantener un equilibrio territorial y que haya una amplia representación del sector artesanal de todo Euskal Herria.

*dute. Bestalde, antolatzaileen iritziz, erakusketari gehiegi jarriz gero, jendeak jaramon gutxiago egingo die produktuei, eta horrek kalte egin diezaieke salmentei.*

*Lehen esan dugun bezala, 50 eskulangintza-lantegik parte hartuko dute aurtengo ekitaldian, eta horietako 19 lehenbiziko aldiz izango dira Errenteriako Eskulangintza Azokan; beraz, parte-hartzaile guztien % 36 berriak izango dira, eta horrek esan nahi du berrikuntza eta txandakatze aipagarria gertatuko dela eskulangileetan eta langintzetan.*

*Artisauen hautaketa-prozesuan irizpide jakin batzuk erabiltzen dituzte. Hasteko, produktu-aukera zabala, lan anitzak eta eskarmentu handia duten artisauak aukeratzen dituzte; objektiboki, bisitariei interesgarrienak irudituko zaizkien guztiei lekua egiten saiatzen dira. Era berean, ahalegin handia egiten dute artisau eta lanbide berriak erakartzeko. Gainera, Gipuzkoako artisauei lehentasuna ematen diete; aurtengoan, parte-hartzaile guztien %46 gipuzkoarrak izango dira. Nolanahi ere, lurraldeen arteko orekari eutsi nahi diote, Euskal Herri osoko artisau-sektorearen ordezkartza zabala eskainiz.*

## 34. Euskal Herriko Eskulangintza Azoka



### MATERIALES Y EXPOSITORES

Los 50 talleres que nos visitan este año proceden de:

Gipuzkoa (23)  
Bizkaia (7)  
Nafarroa (7)  
Araba (6)  
Iparralde (2)  
Otras comunidades (5)

Entre los materiales que estarán presentes este año están:

Alfarería y Cerámica: (11 expositores)  
Madera (7 expositores)  
Hierro y Metal (5 expositores)  
Piedra (2 expositores)  
Vidrio: (4 expositores)  
Textil (6 expositores)  
Papel y cartón (3 expositores)  
Cuero (5 expositores)  
Artesanías varias (7 expositores)

Hay que recordar que la primera exigencia de la organización para los participantes en la Feria es que "deben", además de exponer sus productos, participar en la elaboración de los mismos de cara al público pudiendo contemplarse "in situ" el proceso de elaboración y ejecución de los diferentes trabajos. Sin duda, este aspecto es el que más curiosidad produce entre el público, sobre todo, el más joven.

Por tanto este año se podrá contemplar una esmerada selección de productos, que abarcan una amplia representación de los distintos oficios artesanales del País

### MATERIALAK ETA ERAKUSLEAK

*Hona hemen aurten gurekin izango ditugun 50 erakusleen jatorria:*


*Gipuzkoa (23)  
Bizkaia (7)  
Nafarroa (7)  
Araba (6)  
Iparralde (2)  
Espainiako Estatuko beste toki batzuk (5)*

*Aurtengo materialen artean ondokoak izango ditugu ikusgai:*

*Buztingintza eta Zeramika (11 erakusketari)  
Zura (7 erakusketari)  
Burdina eta metal (5 erakusketari)  
Harria (2 erakusketari)  
Beira (4 erakusketari)  
Ehunak (6 erakusketari)  
Papera eta kartoia (3 erakusketari)  
Larrua (5 erakusketari)  
Askotariko eskulangintzak (7 erakusketari)*

*Gogorarazi beharra dago antolatzaileek Azokan parte hartzen duten eskulangileei egiten dieten lehen eskakizuna: beren produktu guztiak erakusgai ipintzeaz gain, produktu horiek jende aurrean landu "behar" dituzte lan guztiak lantzeko eta burutzeko prozesua bertatik bertara "in situ" ikusi ahal izateko. Hauxe da, agian, jendearengan (eta, batez ere, gazteenengan) jakin-minik handiena pizten duena.*

*Beraz, aurten produktuen aukeraketa on bat ikusi ahal izango da, produktu hauek Euskal Herriko artisau langintzen eredu zabal bat diralarik.*



## TEMA ESPECIAL: ALFARERÍA Y CERÁMICA

En esta XXXIV edición se vuelve a recuperar una de las características de la Feria de Errenteria, al dedicar una atención especial a un tema o a un material determinado.

En esta ocasión el tema principal es la Alfarería y Cerámica y para ello se dedicarán dos actuaciones especiales:

Por un lado 10 talleres artesanos, tanto del País Vasco como de otras comunidades, que estarán dentro del recinto ferial, y por otro una carpa exterior donde se desarrollará el proyecto "Ollerías Maratoia 2012".

Siendo la Cerámica uno de los oficios artesanales más antiguos de la humanidad, presente en todas las civilizaciones, su variedad de técnicas y formas es enorme. Para esta edición la organización ha realizado un gran esfuerzo en traer alfarerías de distintas comunidades, con el fin de que podamos ver algunos de los distintos tipos de cerámica popular existente. En este sentido nos acompañarán alfares de Castilla León, Aragón, Castilla la Mancha y la Rioja. Por supuesto también contamos con una importante representación de ceramistas de Euskal Herria.

Talleres que estarán presentes dentro de los stand de Alfarería y Cerámica:

Taller la Huerva / Javier Fanlo y Montse Mazas:

Desde Muel (Zaragoza) este taller artesanal protagoniza una búsqueda y aprendizaje de técnicas tradicionales, fundamentalmente de modelado

## GAI BEREZIA: BUZTINGINTZA ETA ZERAMIKA

*34. ekitaldi honetan, Errenteriako Azokak, lehenago ere egin izan duen bezala, arreta berezia eskainiko dio berriz ere gai edo material jakin bati.*

*Oraingo honetan, Buztingintza eta Zeramika hautatu dugu, eta bi jarduera berezi eskainiko dizkiogu gai horri:*

*Batetik, 10 eskulangile izango dira erakustazokan bertan, Euskal Herrikoak eta beste zenbait lekutatik etorriak, eta, bestetik, karpa bat jarriko da azokaren kanpoaldean, non proiektu berezi bat landuko den: "Ollerías Maratoia 2012".*


*Gizateriaren eskulangintzarik zaharrenetakoa da zeramika, zibilizazio guztietan ageri dena, eta ezin konta ahala teknika eta forma biltzen ditu. Ekitaldi honetarako, antolatzaileek ahalgin handia egin dute hainbat lekutako buztin-gileak ekartzeko, jendeak ikus dezan zer-nolako zeramika moduak lantzen diren gaur egun. Aurtengo gonbidatuen artean, Gaztela eta Leongo buztin-gileak izango ditugu, Aragoikoak, Gaztela Mantxakoak eta Errioxakoak. Horiekin batera, nola ez, Euskal Herriko zeramika-egile ugari ere izango dira.*

*Buztingintzari eta Zeramikari eskainitako erakusmahaietan aurkituko ditugu eskulangile horien guztien proposamenak:*

*La Huerva lantegia/ Javier Fanlo eta Montse Mazas:*

*Muel herritik heldu dira eskulangile hauek (Zaragoza). Tradizioz datozen teknikak bilatzea*

## 34. Euskal Herriko Eskulangintza Azoka



manual. La cerámica a mano, bruñida, cocida en reducción, la recuperación de formas y creaciones nuevas, marca un estilo característico de "La Huerva". Desde el principio, la investigación ha sido constante como paso previo a la creación de nuevos trabajos.

También la reproducción y estudio de cerámicas arqueológicas y sus técnicas o las colecciones para museos y universidades.

Les interesa la cerámica como expresión cultural, el pasado como aprendizaje y la experimentación como aportación de futuro.

### Gerardo Pescador

El ceramista palentino Gerardo Pescador, está muy vinculado con el municipio de Lezo, localidad donde residió varios años.

Ha realizado destacados trabajos de restauración de fachadas y edificios entre los que cabe destacar el que realizó en la Alhambra de Granada, así como murales de gran tamaño en portales de edificios nuevos. Monumentos arquitectónicos y paisajísticos emblemáticos, en ciudades como Palencia, Burgos, Madrid, Valladolid, París y Burdeos, son depositarios de sus obras.

Ha obtenido numerosos premios y menciones, que comenzaron en 1984 con la concesión del 1º Premio Nacional de Cerámica Ciudad de Palencia.

En 1988 obtuvo el 2º premio nacional de cerámica Ciudad de San Sebastián y en 1994 el 1º premio en diseño en cerámica de la Junta de Castilla y León. Más recientemente, en 2008 logró el 1º premio nacional Ciudad de Cuenca.

*eta ikastea izan da beren lehentasunetako bat, batez ere eskuz modelatzeko teknikak. Zeramika eskuz lantzea, leuntzea, erredukzioz egotea, formak eta irudiak berreskuratzea eta sorkuntza berriak egitea, horiek dira La Huervak lantzen duen estiloaren bereizgarriak. Hasierahasieratik, ikerkuntzari lotu zaizkio etengabe, eta hortik abiatu dira lan berriak sortzera.*

*Zeramika arkeologikoaren arloan ere aritzen dira, bai erreproduzkiok egiten, bai lan horiek eta beren teknikak aztertzen, eta museoetako eta unibertsitateetarako bildumak ere egiten dituzte.*

*Kultura-adierazpide gisa interesatzen zaie zeramika, ikaskuntza gisa iragana, eta esperimintazioa, berriz, etorkizuneko ekarpen gisa.*

### Gerardo Pescador


*Palentziarra da Gerardo Pescador buztingilea. Lezon bizi izan zen zenbait urtez, eta lotura handia du herri horrekin.*

*Zaharberritze-lan aipagarriak egin ditu hainbat fatxada eta eraikinetan, eta bat nabarmentzekotan, Granadako Alhambran egina nabarmenduko genuke; horretaz gain, neurri handiko muralak ere egin izan ditu eraikin berrien atarietan. Harenak dira, halaber, Palentzian, Burgosen, Madrilen, Valladoliden, Parisen eta Bordelen egindako hainbat monumentu arkitektoniko eta paisajistiko, guztiak ere aski ezagunak.*

*Sari eta aipamen ugari eskuratu ditu bere ibilbidean: 1984. urtean eman zioten aurrenekoa, Zeramika arloko 1. Sari Nazionala Palentzia Hiria Lehiaketan.*

*1988an Zeramika arloko 2. Sari Nazionala lortu zuen Donostia Hiria Lehiaketan, eta 1994an, 1. saria Zeramika arloko diseinuetan, Gaztela eta Leongo Juntak emana. Berrikiago, 2008. urtean, 1. Sari Nazionala irabazi zuen Cuenca Hiria Lehiaketan.*

## 34. Euskal Herriko Eskulangintza Azoka



### Alfarería Torrado

Procedente de Navarrete, uno de los centros alfareros más importantes de La Rioja y que con mayor potencia mantiene el oficio, Jesús Armando Torrado es un claro ejemplo del alfarero que mantiene en sus productos la esencia de la cerámica popular riojana.

### Lorea Lasa

Ceramista navarra, con participación activa en el proyecto CREAR. Este proyecto impulsado en su día por el Ayuntamiento de Iruñea, dentro del programa europeo URBAN, buscaba promocionar y actualizar la artesanía hacia nuevos diseños. Su trayectoria profesional está encauzada en estos momentos hacia la cerámica creativa. En sus obras combina el barro con otros materiales presentando una serie de creaciones originales, como lámparas, murales, y también obras más pequeñas como bisutería cerámica.

### Baob@. Edyluz Torres

En el taller Baob@ se hace de la porcelana fría un arte, donde se crea, se diseña y se elaboran piezas únicas para nuestros clientes. Mezclando, la técnica del moldeado a mano con otras disciplinas como Decoupage, Arena, Papel Maché se logran magníficas miniaturas de gran belleza. Son pequeñas obras de arte que simbolizan los espacios que diariamente visitamos en nuestra vida cotidiana. Se trabaja minuciosamente a mano, reivindicando así la labor incalculable del oficio artesano.

### Karine Duhalde

Joven artesana de Baiona de formación autodidacta, cuyo trabajo está basado en la cerámica de mosaicos. Su colorista producción combina materiales como la piedra de la Rhune, el hormi-

### Torrado buzingintza-lantegia

*Navarretetik dator, Errioxan dagoen buzingintza-gunerik garrantzitsuenetakotik, leku gutxitan eutsi diote-eta han bezain indartsu langintza horri. Jesus Armando Torradoren lanetan ezin hobeki islatzen da Errioxako herri-zeramikaren muina.*

### Lorea Lasa

*Nafarra da buzingile hau, eta ekimen handia erakutsi du, besteak beste, CREAR proiektuan. Iruñeko Udalak sustatu zuen proiektu hori bere garaian, Europako URBAN programaren barnean, eskulangintza sustatzeko eta gaurkotzeko helburuz, diseinu berrietarantz egin zezan. Uneotan, sormenezko zeramikara bideratua dago haren lan-ibilbidea.*

*Buztina eta beste material batzuk konbinatzen ditu, eta sorkari original askoak aurkezten: lanparak, muralak eta lan txikiagoak ere bai, zeramikazko bitxiak, esaterako.*

### Baob@. Edyluz Torres

*Baob@ lantegian, portzelana hotza erabiliz, pieza bakanak sortzen, diseinatzen eta egiten dituzte. Eskuz moldeatzeko teknika eta beste diziplina batzuk nahasten dituzte, Decoupage delakoa, harea, Maché papera, eta edertasun handiko miniatura bikainak lortzen dituzte.*


*Artelan txikiak dira, gure eguneroko bizitzan bisitatu ohi ditugun lekuak sinbolizatzen dituztenak. Zehaztasun handiz lan egiten dute, eskuz betiere, eta horrela aldarrikatzen dute eskulangintzak berekin duen lan kalkulaezinaren balioa.*

### Karine Duhalde

*Baionako eskulangile gaztea da, autodidakta, eta mosaikoen zeramikan oinarritzen du bere lana. Hainbat material konbinatzen ditu bere*



## 34. Euskal Herriko Eskulangintza Azoka



gón pulido y otros, con placas, esmaltes, vidrio, etc. Entre sus variados productos podemos encontrar espejos, bandejas y platos, marcos, jarrones y macetas, y un largo de objetos para la decoración interior y exterior.

### Bruno Hurault

Ubicado su taller en Senpere, este artesano trabaja tanto la cerámica al torno como modelada. Su producción principalmente en gres y rakú, abarca una extensa gama tanto de objetos utilitarios como para la decoración del hogar. También tiene obra escultórica.

### Taller Alfacer

Desde la población abulense de Poyales del Hoyo, para Pepa y José Luis estudiar los rasgos de la vieja cerámica tradicional es algo tan precioso y exigente como deslumbrador en sus resultados. Por ello se animaron a montar este taller, que acompañado de barro, esmalte, pinceles, óxidos colorantes y fuego, hacen resaltar la belleza de las piezas, donde no es difícil encontrar algún reflejo de otras cerámicas: Persa, Mudejar etc ... pero siempre imperando el trabajo personalizado de ambos.

### Imanol Aramburu

Este artesano arrasatearra, licenciado en Bellas Artes en la especialidad de Grabado por la UPV y graduado en Cerámica por la Escuela de Artes y Oficios Artísticos de Salamanca, ha trabajado tanto el grabado como la cerámica, pero actualmente está más volcado en esta última. En sus obras combina utilidad, diseño, calidad.

*sorkuntza-lan koloretsuetan: Larrungo hariarekin, hormigoi leunduarekin eta beste batzuekin batera, plakak, esmalteak, beira, eta abar erabiltzen ditu. Askotariko lanak sortzen ditu, etxe barnea eta kanpoa apaintzeko ezin egokiagoak: ispiluak, erretilu eta platerak, markoak, txarroak eta loreontziak...*

### Bruno Hurault

*Senperen dauka lantegia, Lapurdin, eta tor-nua erabiliz eta eskuz modelatuz lantzen du zeramika. Nagusiki, gresa eta rakua egiten ditu, baina denetarik aurki liteke haren lanetan, hasi objektu erabilgarrietatik eta etxea apaintzerainokoak. Eskultura ere egiten du.*


### Alfacer lantegia

*Poyales del Hoyotik datoz Pepa eta Jose Luis, Avilatik, eta haientzat, zeramika tradizionalaren aspaldiko ezaugarriak ikertzeko lana guztiz ederra eta zorroztasun handiz egin beharrekoa da, eta bilaketa horren emaitza, berriz, liluragarria. Horrexegatik jarri zuten lantegi hau, eta buztina, esmaltea, pintzelak, oxido kolortzaileak eta sua lagun hartuta, piezen edertasuna nabarmentzea lortzen dute, eta beste zeramika modu batzuen arrastoak ere sumatzen zaizkie zenbaitetan: persiarra, mudejar erakoa... Oinarrian, dena den, bi eskulangileen lan pertsonalizatua dago.*

### Imanol Aramburu

*Arrasatekoa da eskulangile hau, Arte Ederretako lizentziaduna EHU, Grabatugintza espezialitatean, eta Zeramikako graduduna Salamancako Arte eta Lanbide Artistikoen Eskolan. Grabatugintzan eta zeramikan lan egin izan du, baina gaur egun, zeramikari emana dago. Erabilgarritasuna, diseinua eta kalitatea uz-tartzen ditu bere lanetan.*

## 34. Euskal Herriko Eskulangintza Azoka



### Arketipo Cerámica

Arketipo Cerámica, es un joven proyecto dedicado a la artesanía y creación en cerámica, ubicado en Puertollano y formado por Vicente, alfarero-ceramista y licenciado en Historia del Arte, y Soiartze, licenciada en Ciencias Químicas.

A lo largo de los tiempos, este antiguo arte se ha preocupado por dotar a los ambientes humanos de personalidad y significado, además de cumplir con una funcionalidad.

Ahora en el presente, el afán de este taller sigue siendo elaborar objetos que respondan al pequeño gran mundo de lo cotidiano, en sus facetas utilitaria, estética y poética. Para realizar esta labor, confían en los procesos artesanales y creativos, por todos los valores que encierra esta manera de hacer.

### CARPA: Proyecto "Ollerías Maratoia 2012"

En la carpa instalada junto a la entrada del recinto ferial se constituye la otra parte dedicada a la alfarería. La finalidad de "Ollerías 2012", es acercar al público, en vivo y en directo, las antiguas formas de trabajar de los alfares.

La alfarería como oficio es una especialidad dentro del amplio mundo de la cerámica. Los profesionales de la alfarería realizaban miles de piezas en sus largas jornadas de trabajo. Esa imagen es la que se quiere plasmar, a través de la realización de la mayor cantidad posible de tazas o "katilus" durante la Feria.

También se incluye la exposición de unas cuarenta piezas representativas de la cerámica popular vasca: Pegarra, pitxarrak, mantequeras, etc,

Se colocarán 5 tornos y durante los días de Feria

### Arketipo Cerámica

*Berriki samar sortutako proiektua da Arketipo Cerámica; Puertollanon dago lantegia, eta eskulangintzan eta zeramikazko sorkuntzan aritzen da. Bi lagunek jarri dute abian ekimen hau, Vicentek (buztingilea/zeramikagilea da, eta Artearen Historiako lizentziaduna) eta Soiartzek (Zientzia Kimikoetako lizentziaduna da).*

*Garairik garai, antzinako arte honek nortasunez eta esanahiz jantzi izan ditu gizakien inguruak, eta funtzionaltasun bat ere eduki du, jakina.*

*Gaur egungo testuinguruan, eguneroko gauza txikien mundu handiari erantzun dioten objektuak egitea da lantegi honen helburua, alderdi erabilgarria, estetikoa eta poetikoa aintzat hartuz. Lan hori gauzatzeko, eskuzko lana -eskulana- eta sormena oinarri dituzten prozesuetan jartzen dute indarra, balio asko biltzen baititu egin-molde horrek.*


### KARPA: "Ollerías Maratoia 2012" proiektua

*Erakustazokara sartzeko gunearen ondoan jarritako karpan egongo da buzingintzari eskainitako atalaren beste zatia. "Ollerías 2012" proiektuaren helburua hau da: jendeak bere begiz ikus dezala, zuzen-zuzenean, garai batean nola lan egiten zuten buzingileek.*

*Zeramikaren mundu zabalean, lanbide berezia da buzingintza. Arlo horretan aritzen ziren langileek milaka pieza egiten zituzten beren lanaldi luzeetan. Irudi horixe islatu nahi da, eta, horretarako, Azokak iraun bitartean, ahalik eta katilu gehien egiten saiatuko dira buzingileak. Katiluak egiteko maratoia izango da, beraz.*

*Horretaz gain, erakusketa bat ere izango da, non Euskal Herriko herri-zeramikaren bereizgarri diren berrogei pieza inguru erakutsiko diren: pegarrak, pitxerrak, gurinontziak, eta abar.*

## 34. Euskal Herriko Eskulangintza Azoka



se realizan piezas que se irán acumulando para generar la imagen de la gran producción. Uno de los tornos estará atendido por una monitora para las personas que quieran probar el oficio. Los otros cuatro tornos estarán ocupados por profesionales. La organización de este espacio corre a cargo de "Ollerias"-Museo de la Alfarería Vasca y de su creadora, la alfarera Blanca Gómez de Segura.

*5 tornu jarriko dira, eta Azokak irauten duen bi-tartean, piezak sortu eta pilatu egingo dituzte, eta ekoizpen handi baten agerleku bihurtuko da karpa. Tornuetako batean begirale bat egongo da, eta haren laguntzaz, jendeak aukera izango du buztingilearen lanbidea probatzeko. Gainerako lau tornuetan profesionalak arituko dira. Gune honen antolatzailea La Ollerias-Museo de la Alfarería Vasca erakundea izan da, eta haren sortzailea, Blanca Gomez de Segura.*

### OTROS ARTESANOS A RESALTAR

Aunque la calidad de todos los participantes es una de las señas de la Feria de Errenteria, todos los años mencionamos especialmente algunos talleres u oficios nuevos que destaquen por su originalidad o ejecución.

#### JOSEBA BURUSKO

"Las manos, la mente y el corazón se hacen uno con la madera, el hierro, la piedra y la tierra". Este sería el resumen de la filosofía que impregna toda la obra de este joven escultor-artesano navarro.

Una obra que partiendo de las raíces tradicionales del arte popular vasco, se proyecta a través del tiempo, la materia y el espacio. Con un extenso curriculum, pese a su juventud, su vanguardista obra abarca desde una nueva interpretación étnico-plástica, temas como la arquitectura popular con la casa y el caserío como epicentro de la vida tradicional, la carpintería naval, las estelas discoidales, el dolmen o el arte prehistórico. Obra que se han podido contem-

### NABARMENDU BEHARREKO BESTE ESKULANGILE BATZUK


Parte-hartzaile guztiak goi mailakoak izaten dira Errenteriako Eskulangintza Azokan, horixe du, hain zuzen, bereizgarrietako bat, baina urtero jartzen diegu arreta berezia lantegi edo langintza berri batzuei, aparteko originaltasuna daukatelako edo gauzak egiteko modu deigarria dutelako.

#### JOSEBA BURUSKO

"Eskuek, buruak eta bihotzak bat egiten dute zurarekin, burdinarekin, harriarekin eta lurrarekin". Hitz horiek laburtzen dute nafar eskultore/eskulangile gazte honen lanak blaitzen dituen filosofia.

Euskal Herriko herri-artearen antzinako sustrietatik abiatzen da haren lana, eta denboran, material eta espazioan barrena egiten du aurrera. Gaztea izanagatik ere, curriculum oparoa du, eta, interpretazio etniko-plástico berri batetik, hainbat gaitan sakontzen du haren lan abangoardistak: herri-arkitektura, non etxea eta baserria diren bizimodu tradizional baten erdigune; itsasontzien zurgintza; disko-formako estelak; dolmena edo historiaurreko artea.

## 34. Euskal Herriko Eskulangintza Azoka



plar en las numerosas exposiciones que ha realizado.

### GORKA URRRA

Gorka Urra, luthier de guitarras clásicas y eléctricas y otros instrumentos de cuerda. Su filosofía es ofrecer a los músicos sus propios instrumentos con la personalidad y cariño, vida y precisión que merecen todos los profesionales que dedican su vida y alma a la música.

Tras un extenso periodo de aprendizaje y gran riqueza en conocimientos junto al gran luthier francés Dupont, decidió volver a su tierra natal, e inspirado por sus raíces realizar sus propios instrumentos ofreciendo a sus clientes un trato personalizado. También fabrica amplificadores a válvulas y pedales.

### LA BENDICERA

Cristina Merino es la artesana que lleva este taller. Según cuenta "la cerería natural se distingue de la cerería convencional por presentar un aroma peculiar y una textura más densa".

La cera de abeja que utiliza, proveniente de las antiguas cererías de la comarca sanabresa, se nutre de las colmenas de la Sierra de la Culebra, de tierras gallegas y de la cercana Portugal, tierras de ecosistemas limpios, lo cual se hace notar en la calidad de la cera, de profundísimo e intenso aroma.

Para elaborar sus variados y coloristas productos, trabaja con dos tipos de cera: la cera de sello, también denominada cera de opérculo, de color amarillento, es la más pura de la colmena y con ella crean su propia paleta de colores. La otra cera es la llamada Cerón: de color marrón, de la que destaca su intenso aroma.

Erakusketa asko egin ditu, eta horietan erakutsi ditu lan horiek guztiak.

### GORKA URRRA

Gitarra klasikoen eta elektrikoen luthieria da, baita harizko beste musika-tresna batzuen ere. Sinetsita dago musikari bakoitzak bere musika-tresna behar duela, eta horixe eskaintzea da haren filosofia: musikarentzat bizitza eta arima eskaintzen duten profesionalak merezi bezalako nortasuna, maitasuna, bizitza eta zehaztasuna izango duten tresnak.

Ikasketa-aldi luzea egin ondoren eta Dupont frantziar luthier handiaren jakinduria aberatsetik edan ondoren, sorterrira itzultzea erabaki zuen, eta haren sustraiek inspiratuta, instrumentuak egiten hastea erabaki zuen, eta bezeroei tratua pertsonalizatua eskaintzea. Anplifikagailuak ere egiten ditu, balbula bidezkoak eta pedal bidezkoak.


### LA BENDICERA

Cristina Merino eskulangileak darama lantegi hori. Hark dioenez, "kandelagintza naturalak usain berezia eta testura trinkoagoa du, eta horretan bereizten da ohiko kandelagintzatik".

Hark erabiltzen duen erle-argizaria, Sanabria eskualdeko kandela-lantegi antzinakoetatik datorrena, La Culebra mendilerroko erlauntzetatik elikatzen da, Galiziako lurretatik eta Portugalgoetatik; ekosistema garbiko lurrak dira horiek guztiak, eta antzematen da argizariaren kalitatean, usain sarkor eta bizikoa baita.

Askotariko produktuak egiten ditu, koloretsuak, eta bi argizari mota erabiltzen ditu horretarako: zigilu-argizaria edo operkulu-argizaria esaten zaiona, kolorez horixka; argizari hori da erlauntzeko puruena, eta horrekin sortzen du bere kolore-paleta. Beste argizaria, berriz, sapsarra esaten zaiona da (Cerón): marroia da kolorez, eta usain nabarmen-nabarmena izaten du.

## 34. Euskal Herriko Eskulangintza Azoka



### RICHARD SANTANA

Creador nato y autodidacta, da origen a unos "bichos" (como él los llama). Estas piezas son elaboradas en resina epoxi, sobre una estructura de alambre galvanizado y corcho.

Partiendo del esqueleto de alambre, modela la resina epoxi con sus manos. Cueros, fibras, maderas, metales y piedras son incorporados durante el proceso creativo, para lograr hasta el más mínimo detalle que le den a cada personaje su propia identidad.

Estos seres de estructura rígida, transmiten al observador la idea de estar vivos, en movimiento. El equilibrio, las poses y los gestos son las claves que causan esta impresión.

La ropa está hecha de cuero, preferentemente reciclado, y los accesorios están realizados con maderas y metales reciclados. No se usan moldes y todas son piezas únicas, modeladas a mano.

### MAYTE DOMINGOS

Trabajo curioso y a la vez laborioso la que lleva a cabo esta artesana para realizar sus productos. Diversos tipos de sedas pintadas a mano, con pinturas de fijación al vapor. También piezas de fieltro nuno, afieltrando a mano lana de merino con sedas o algodones bien en blanco, pintados o teñidos. Con estos tejidos se realizan piezas como cuadros, chales, pañuelos, o bisutería: colgantes, broches, sortijas.

### RICHARD SANTANA

Sortzaile peto-pettoa eta autodidakta da, eta "zomorroak" egiten ditu ("bichos" esaten die berak). Epoxi erretxinarekin aritzen da, eta alambre galvanizatuaren eta kortxoaren gainean jartzen du.

Alanbrezko egituratik abiatzen da, eta eskuekin modelatzen du epoxi erretxina. Sortze-prozesuan, hainbat material eranstean dizkio objektu bakoitzari: larruak, zuntzak, zurak, metalak eta harriak. Era horretan, xehetasunik txikiena ere zaintzen du, eta horrek nortasun berezia ematen dio pertsonaia bakoitzari.


Egitura zurrunezko izaki horiei begira jarri, eta bizirik daudela pentsa liteke, mugitzen ari direla. Orekak, jarrerek eta keinuek ematen diete berezitasun hori.

Arropak larruz egiten ditu (birziklatua izaten da gehienbat) eta osagarriak, berriz, zur eta metal birziklatuekin. Ez du molderik erabiltzen, eta pieza guztiak bakarrak dira, eskuz modelatuak.

### MAYTE DOMINGOS

Lan bitxi bezain neketsua eskulangile honek egiten duena. Hainbat zeta mota sortzen ditu, eskuz margotuak, lurrunarekin itsastean diren margoak erabilia. Baita nuno feltrozko piezak ere, borro-artilearentzako feltroa eskuz eginez, zetak edo kotoiak erabilia, bai zuriak, margotuak edo tindatuak. Ehun horiekin, koadroen antzeko piezak egiten ditu, xalak, zapiak edo bitxi gisakoak: zintzilarioak, paparrekoak, eraztunak...

## 34. Euskal Herriko Eskulangintza Azoka



### SORTEO DE VALES COMPRA

La XXXIV Feria de Artesanía del País Vasco quiere potenciar a través de sorteos de vales compra, la adquisición de productos en la Feria.

Para ello, sorteará vales por 60,00 euros, coincidiendo con todas las sesiones de mañana y tarde de la Feria de Artesanía. Es decir, serán 7 vales a lo largo de los cuatro días de feria, con un montante de 350,00 euros en vales compra.

Estos vales obligatoriamente se deberán gastar en productos artesanales de los expuestos en la Feria.

### ASISTENCIA, COSTES Y FINANCIACIÓN

La Feria espera contar para este año con una asistencia en torno a 8.000 visitantes, repartidos en los cuatro días que permanecerá abierta (de sábado a martes).

Los gastos totales para esta XXXIV edición de la Feria de Artesanía asciende a 41.000 euros, con lo que se intenta ajustar la cifra de años anteriores, con una pequeña reducción debido a que se ha eliminado la carpa exterior de anteriores ediciones.

En relación a la financiación, la mayor parte de los ingresos proceden de la recaudación de las entradas y el resto entre Diputación Foral de Gipuzkoa Departamento de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo) y Ayuntamiento de Errenteria.

### EROSKETA TXARTELEN ZOKKETA

*Euskal Herriko XXXIV. Eskulangintza Azokaren antolatzaileek produktuak eros daitezen bultzatu nahi dute, eta erosketa-txartelak zozketatuko dituzte horretarako.*

*60,00 euroko txartelak zozketatuko dituzte, txartel bana goizeko eta arratsaldeko saio bakoitzean. Hau da, 7 txartelen zozketa egingo dute hiru egunetan; beraz, 350,00 euro banatuko dituzte, guztira.*

*Txartel horiek eskulangileek erakusgai dituzten produktuak erosteko erabili beharko dira nahi-taez.*


### BISITARIAK, KOSTUAK ETA FINANTZAKETA

*Aurten, hiru egunez egongo da zabalik azoka, eta larunbatetik asteartera 8.000 bisitari inguru izatea espero dute antolatzaileek.*

*Euskal Herriko XXXIV. Artisautza Azokaren gastuen aurrekontua 41.000 eurokoa izango da. Gastuak zertxobait murrizteko, aurreko urteetan kanpoaldean zegoen karpa aurten ez da jarriko.*

*Finantzaketari dagokionez, diru gehiena sarre-rei esker lortuko da, eta gainerakoa Gipuzkoako Foru Aldundiak (Berrikuntzako, Landa garapene-ko eta Turismo Departamendua) eta Errenterriako Udalak finantzatuko dute. Halaber, KUTXA Gipuzkoa-Donostia Kutxa finantza-erakundeak babesa emango dio Euskal Herriko Eskulangintza*

## 34. Euskal Herriko Eskulangintza Azoka



Igualmente colabora desde sus inicios con la Feria de Artesanía del País Vasco la entidad KUTXA Fundazioa.

### PREMIOS ARTESANALES DE LA FERIA

Como en años anteriores, en esta edición se establecerán dos premios relacionados con la decoración y presentación de los stand y con la calidad del producto.

"El premio a la Calidad del Producto Artesano" se regirá con arreglo a los siguientes parámetros:

- Investigación y experimentación, tanto en materiales como en técnicas productivas.
- Diseño, innovación de estilos.
- Maestría en la ejecución y acabado.

El premio será de 350 euros y diploma y se decidirá mediante un Jurado cualificado en la materia designado por la Organización..

En cuanto al Premio al Mejor Stand Decorado seguirá las pautas de años anteriores. Se premiará al expositor que valiéndose de sus propias materias primas o de sus productos ya acabados, o en fase de elaboración relacionados directamente con su especialidad, ofrezca en su conjunto el mejor stand, en función de su presentación y de su calidad estética.

El premio será de 250 euros y diploma acreditativo.

La entrega de los premios se efectuará el Domingo día 29 de ABRIL a las 16:15 horas de la tarde y se comunicará oportunamente a todos los medios informativos el resultado del concurso y una breve reseña de los ganadores.

*Azokari, hasiera-hasieratik egin duen moduan.*

### AZOKAREN ARTISAU - SARIAK

*Aurreko edizioetan bezalaxe, aurtengoan ere bi sari banatuko dira: erakustokien apainketa eta aurkezpenarekin lotua bata, eta produktuen kalitatearekin erlazionatutakoa bestea.*

*Artisau-produktuaren kalitatea saritzeko, honako parametro hauek hartuko dira kontuan:*

- *Ikerketa eta esperimentazioa, bai materiale-tan, bai ekoizpen-tekniketan.*
- *Diseinua eta estiloen berritasuna.*
- *Produktuaren lanketa eta akaberaren fintasuna.*


*Saria 350 eurokoa izango da, eta diploma bat ere emango zaio irabazleari; gai horretan jantzita dauden pertsonak hautatuko ditu antolakuntza-taldeak epaimahaia osatzeko..*

*Ongien apaindutako erakusmahaiari ematen zaion sariak, berriz, aurreko urteetako arauei jarraituko die. Erakusmahairik onena osatzen duenari emango zaio sari hori, eta aurkezpena eta kalitate estetikoa hartuko dira aintzat. Erakusmahaia atontzeko, nor bere lehengaiak edo produktu bukatuak erabili beharko ditu, edo prestatze-fasean daudenak ere izan daitezke, baldin eta bere espezialitatearekin zerikusi zuzena badute.*

*Sari gisa 250 euro eta hori egiaztatzen duen diploma jasoko ditu irabazleak.*

*Sariak apirilaren 29ean banatuko dira, igan-*

## 34. Euskal Herriko Eskulangintza Azoka



*dean, arratsaldeko 16:15ean, azokan bertan. Komunikabide guztiei emango zaie lehiaketaren emaitzaren berri, baita eskulangile irabazleei buruzko aipamen labur bat ere.*

### INAUGURACIÓN

Para el acto de inauguración que se celebrará el sábado 28 de abril de abril a las 18:00 de la tarde podrán asistir con sólo presentar la invitación que se adjunta.

En la misma tienen previsto asistir entre otros:

- Jon Uriguen Ansola (Diputado del Departamento de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo)
  - Julen Mendoza (Alcalde de Errenteria)
  - Otras autoridades locales y provinciales, así como responsables de entidades colaboradoras.
- Tras la apertura oficial, las autoridades recorrerán los diversos stand que componen esta nueva XXXIV edición.

### WEB EREINTZA.COM

Dentro de la página web [www.ereintza.com](http://www.ereintza.com), la Feria de Artesanía dispone de información completa y actualizada del desarrollo de la Feria.

También se incorpora un apartado de noticias donde pueden encontrar la información que se vaya generando durante la edición de esta Feria. Igualmente disponen de este mismo dossier para cualquier consulta.

### INAUGURAZIOA

*Inaugurazio-ekitaldia apirilaren 29an izango da, larunbatean, 18:00etan; bertara joateko nahikoa izango duzue honekin batera doan gonbidapena aurkeztea.*

*Bertan izango dira, besteak beste, honako hauek:*

- Jon Uriguen Ansola (*Berrikuntzako, Landa garapeneko eta Turismoko Saila Diputatua*).
  - Julen Mendoza (*Errenteriako alkatea*).
  - Tokiko nahiz probintziako beste agintari batzuk eta erakunde laguntzaileetako arduradunak.
- Irekiera ofizialaren ondoren, XXXIV. edizioko erakustokiak bisitatuko dituzte agintariak.*


### WWW.EREINTZA.COM

*Gure web-orrian ([www.ereintza.com](http://www.ereintza.com)), Eskulangintza Azokari buruzko informazio osatua eta eguneratua eskainiko dugu Azokak iraun bitartean.*

*Albisteak emateko atal bat ere erantsi dugu, Azokaren ekitaldi honetan sortzen den informazioa emateko baliatuko duguna. Horretaz gain, txosten honetan ere hainbat argibide aurkituko dituzue.*



## 34. Euskal Herriko Eskulangintza Azoka



### RECINTO FERIAL • ACCESOS

#### RECINTO FERIAL

El recinto ferial estará instalado como en años anteriores en la sala "Jose Luis Caso Aretoa" del Centro Cultural Merkatuzar, antiguo Mercado Municipal de Errenteria.

Junto al mismo se instalará la carpa de "Ollerias Maratoia 2012", la taberna y el puesto de los talos.

Por lo tanto, el espacio total disponible para la XXXIV edición, será de 1.250 m2 aproximadamente.

#### ACCESOS

Queremos recordar asimismo que la mejor manera de acceder al recinto ferial para todas aquellas personas que nos visiten de la provincia es en los transportes públicos ya que tanto el tren RENFE, como el topo EUSKO TREN, así como las líneas de autobuses de HERRIBUS (a OIARTZUN y PASAI DONIBANE) e IRUN-HONDARRIBIA tienen parada a escasos metros de la calle Pablo Iglesias (Mercado Municipal). Concretamente la estación de EUSKO TREN (Topo) de Errenteria está junto al recinto ferial.

No obstante la organización colocará carteles indicativos del recinto ferial, desde las paradas de los transportes públicos.

### AZOKA-BARRUTIA • SARBIDEAK

#### AZOKA-BARRUTIA

*Erakustazoka, aurreko urteetan bezala, "Jose Luis Caso" aretoan egongo da, Merkatuzar erai-kinean (Errenteriako Udal Merkatua izan zena). Haren ondoan, "Ollerias Maratoia 2012" proiektuaren karpa, taberna eta talo-saltokia egongo dira.*

*Beraz, 34. ekitaldi hau gauzatzeko, 1.250 m2-ko eremua izango dugu, gutxi gorabehera.*


*Beraz, XXXIV. edizio honetan 1.250 m2-ko guztizko azalera hartuko du, gutxi gorabehera, azokak.*

#### SARBIDEAK

*Bestalde, gogoratu nahi dugu probintziatik datorren jendearentzat azokara bertaratzeko modurik egokiena garraio publikoak direla, izan ere, RENFEko trenak, EUSKO TRENeko topoak eta HERRIBUS (Oiartzunera eta Pasai Donibanera) eta IRUN-HONDARRIBIA autobus-lineek geltokia baitaukate Pablo Iglesias kaletik (Udal Azokatik) hurbil. Azpimarratzekoa da EUSKO TRENek Errenterian duen geltokia Azokaren parean dagoela.*

*Nolanahi ere, antolatzaileek azoka-barrutiaren berri emango duten kartelak ipiniko dituzte garraio publikoetako geltokietatik.*

## 34. Euskal Herriko Eskulangintza Azoka



### ENTREVISTAS

Para terminar queremos lanzar un ruego a los medios de comunicación y a las instituciones, para que hagan más visible la artesanía vasca apoyando la divulgación de este tipo de eventos, de manera que deje de ser la hermana pobre entre los sectores económicos del País.

Si desean concertar una entrevista con personal de la organización deberán ponerse en contacto para concretar la hora y el lugar en los teléfonos: 943 340586 / 609281138

Durante los días de Feria estamos disponibles en el propio recinto ferial o en el teléfono móvil: 605 751516 ó 609 281138.

Entre las personas que tienen disponibles para sus entrevistas:

Jone Idiazabal  
Josu Izaguirre  
Josetxo Oliveri  
Jon Kortajarena

### ELKARRIZKETAK

*Azkenik, hedabideei eta erakundeei eskari bat egin nahi diegu: euskal artisautza ezagutzera eman dezatela honelako ekimenen berri emanez, Euskal Herriko sektore ekonomikoen 'ahizpa txi-roa' izateari utz diezaion.*

*Antolatzaileei elkarrizketa bat egin nahi izanez gero, deitu telefono hauetara, hitzordua eskatzeko: 943 340586 / 609281138*

*Azokako egunetan, azokan bertan edo telefono hauetan aurkitu ahal izango dituzue: 679 197669 edo 609 281138.*

*Pertsona hauek elkarrizketa ditzakezue, besteak beste:*

*Jone Idiazabal  
Josu Izaguirre  
Josetxo Oliveri  
Jon Kortajarena*